



**2018KO UZTAILAREN 13KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko uztailaren hamahiruan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2018ko ekainaren 29an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 61 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HEMEZORTZI MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA SEI EURO ETA LAU ZENTIMO (18.346,04 €)takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-**

- 18-01-009 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea uztaileko hilabetetik, udalerriz aldatu delako.

**Esku-hartze familiarra.-**

- 16-15-01 zbk.dun esped.: esku-hartze familiarren intentsitatea murriztea ekaineko hilabetetik. Murrizketa hau kontuan izanda, 2018ko ekainetik abendura aurreikusitako kostua 1.497,97€ -koa izango da.

**IV.- ETXEBIZITZA ETA EKONOMIA JARDUERA ARLOKO DIRU LAGUNTZAK.-**

Etxebizitza eta Ekonomia Jarduera arloko zinegotziaren proposamenaren aurrean, tokiko gobernu batzarrak, aho batez, Lazkaoko Lazkaon merkatarikari elkarteari 2018. urtean merkataritza sustatzeagatik, eskualdeko dinamizatzailea finantzatzeko diru laguntza kontzeptuan, 1.100,00 € ematea erabakitzen du.



#### V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura arloko zinegotziak egindako proposamenen aurrean, tokiko gobernu batzarrak, aho batez, honako diru laguntza hauek onartu ditu:

##### Jon Barandiaran Mujika.-

2018ko San Juan egunez, San Juan Txikiko ermitan meza eta hamaiketakoaren antolaketaren gastuei aurre egiteko 543,34 € ematea.

##### Mikel Insausti Garmendia.-

2018ko San Prudentzio jaien barruan, esku pilota txapelketaren antolaketagaitik 525,00 €ko diru laguntza ematea. Lehen aurreratutakoa 400,00 € izanik, orain ordainduko zaiena 125,00 € izango da.

##### Antzar Korrikalariak.-

2018ko San Prudentzio jaien barruan, apirilaren 27an antolatutako bikote mistoen lasterketaren antolaketaren gastuei aurre egiteko 3.277,00 €-ko diru laguntza ematea. Lehen aurreratu zitzaizen zenbatekoa 3.000,00 € izanik, orain emango zaiena 277,00 € izango da.

##### Lazkaoko Oin Arin dantza taldea.-

2018ko ekainaren 17an izandako dantzari txiki eguneko gastuei aurre egiteko 2.091,90€ko diru laguntza ematea.

#### VI.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kirol batzordearen proposamenaren aurrean, tokiko gobernu batzarrak, aho batez, honako hau onartu du:

##### Lazkaoko Antzar Korrikalariak.-

2018ko uztailaren 7an antolatutako IV. Antzar Triatloi Eskolar probaren antolaketagaitik 475,00 €-ko diru laguntza ematea.

#### VII.- GALDERA ETA ERREGUAK .-

Alkateak esaten du, azkenaldi honetan eman diren bajak eta aurretik aurreikusten zen lan pilaketen ondorioz, liburutegian lan saio erdian dagoen administrariari lan saio osora zabaldu zaiola bere ordutegia eta beste alde batetik 6 hilabeterako administrari bat hartzeko deialdia egin dela.

#### VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

LAZKAOKO  
UDALA